

Lehenik eta behin, gure proiektuan, Udaletxearen parte hartzea ezinbestekoa da, izan ere, honek ordainduko du proiektu hau aurrera ateratzeko behar den baliabide ezinbestetakoak, telefono linea finko bat. Linea honetara iristen diren deien bitartez jakingo dugu ea norbaitek une zehatz batean zerbitzu honen beharra duen ala ez. Bestalde, herritarrak eta gidariak ere ezinbestekoak dira elkarren arteko tratua osatzeko. Alde batetik herritarrak zerbitzu hau kontsumitzeko eta aurrera ateratzeko, eta beste aldetik gidariak, hauek gabe ez litzatekelako zerbitzurik egongo herritarren bila joateko. Dena den, antolakuntza honetan gidarien parte hartzea boluntarioa da, hots, inor ez dago behartua bertan parte hartzeko.